



ASOCIACION GUIPUZCOANA DE AUTISMO

GAUTENA

GUIPUZKOAKO AUTISMO ELKARTEA



Jarduera Txostena
2010



GAUTENA

ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE AUTISMO
GIPUZKOAKO AUTISMO ELKARTEA

C/ Francisco López Alen, 4
20009 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Apartado 1000
20080 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Tel.: 943 21 53 44 / 21 52 49

Fax: 943 21 52 39

gautena@sarenet.es

www.gautena.org



Aurkibidea



1. Orokorra	3
1.1.- Autismoa Europan	3
1.2.- FEAPS/FEVAS	3
1.3.- Euskal Autonomia Erkidegoa	3
1.4.- Gipuzkoa	3
1.5.- Aliantzak	3
2. Kudeaketa	4
2.1.- Plan Estrategikoaren eta Kudeaketa Planaren jarraipena	4
2.2.- Zerbitzuak	4
2.2.1 Diagnostiko eta Tratamendurako Zerbitzua	4
2.2.2 Hezkuntza Zerbitzua	6
2.2.3 Eguneko Arretarako Zerbitzua	7
2.2.4 Etxebizitza Zerbitzua	8
2.2.5 Familiei Laguntzeko Zerbitzua	9
2.3.- Kalitatea eta Ezagutza	13
2.3.1 Kalitatezko ereduak eta sistemak aplikatzea	13
2.3.2 Kalitate arloko berrikuntza	13
2.3.3 Ezagutzaren kudeaketa	14
2.4.- Bestelako jarduera batzuk	14
2.4.1 Urteko Sentiberatze Kanpaina	14
2.4.2 Hitzaldi Zikloa	15
2.4.3 Laneko bisitaldiak	15
3. URTEKO KONTUAK	16
3.1. EGOERA BALANTZEA	16
3.2. EMAITZEN KONTUA	17



Aurkezpena

Zuzendaritza Batzordea garen heinean, atsegin handiz beteko dugu urteroko konpromisoa: 2010eko Memoria honen bitartez, GAUTENAK urtean barrena gauzatutako jardueren laburpen bat aurkeztea, alegia.

Memoria honetan, beraz, Elkar-tearen funtzionamenduari buruzko informazioa eta 2010ean gauzatutako aurrerapen nagusiei buruzko informazioa eskaintzen dizuegu. Autismo Espektroaren Nahasmenduak (AEN) eta pareko premiak dauzkaten adimen-ezintasunak dituzten pertsonen guraso edo/eta anai-arreba garenez, pertsona horien eta euren familien premiei erantzutea dugu xede, irizpide etikoei eta kalitate-irizpideei begira, batzuen zein besteen bizi-kalitatea bilatu nahian.

Geure gizarteari eragiten dion krisialdiaren hirugarren ekitaldia izan dugu 2010. urtea. Finantzaketa publikoan zenbait akordio lortu badira ere, Gure Elkar-tearen jarduerari ez dio horrek batere eragin, eta aldaketa handirik gabe kudeatu behar izan ditugu gure Programa eta Zerbitzuak.

Batez ere osasunaren arlotik geroz eta haur gehiago bidaltzen dizkigute, gure Erakundean diagnostikoa eta tratamendua eman diezaiegun. Administrazioari eman diogu horren berri, baina oraindik ez digute helburu hori asetzeko laguntza gehigarririk eman.

2010. urtean, Berioko Aldi Baterako Egoitza eta Etxebizitzaren Zerbitzu berria eraikitzeari ekin, eta azkeneko, lana amaitu dugu; hain zuzen, Foru Aldundiak (%75) eta Kutxaren Gizarte Ekintzak (%25) finantzatuta. Zerbitzu berri hau urte berriarekin batera jarri da martxan, eta horri esker, Etxebizitza eta Aldi Baterako Egonaldiatarako Zerbitzuei begira erantzuteko dugun gaitasuna indartu dugu.

Gainerako Zerbitzuetan betiko moduan jarraitu dugu lanean. Ez daukagu azpimarratzeko moduko berrikuntzarik, ezpada ikasgelaren bat itxi, eta berria zabaldu dugula, edo baten bat tokiz aldatu dugula.

GAUTENAK lanean jarraitu du, Laguntzarako Banaka-banakako Programa tradizionala Nahitaezko Proiektu izeneko proiektu berriarekin ordezkatzeko asmoz. Esan daiteke 2011. urtean barrena hasiko garela, pixkana-pixkana, hori aplikatzen. Bide beretik, Egokitze Etikorako Planarekin jarraitu dugu, eta baita bikaintasunerako ereduak eskatutako Prozesukako kudeaketarekin ere.


Amaitzeko, hitz hauen bitartez, eskerrak eman nahi dizkiegu Autismo Espektroaren Nahasmenduak (AEN) dituzten pertsonen eta euren senitartekoei, GAUTENAn lan egiten duten profesionalei, Administrazio Publikoei -Eusko Jaurilaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Udalak-, Gizarte Ekintzei -Kutxa, Once Fundazioa, Euskadiko Kutxa, Caixa eta Caja Madrid-, Ormak eta Zubiaurre enpresa-lankideei, partikularrei eta baita oro har gizarte osoari ere, gure Erakundeak eguneroko lanean jarrai dezan ezinbestekoa den etengabeko babesa emategatik.

Har ezazue, guztiok ere, agur bero bana.

ZUZENDARITZA BATZORDEA



I. Orokorra



1.1.- Autismoa European

- GAUTENAK, urte honetan ere, Europako Elkartean parte hartzen jarraitu du. Azaroan, esaterako, Bruselan egin zen Administrazio Kontseiluaren bileran izan zen.

1.2.- FEAPS/FEVAS

- GAUTENAK, era berean, Euskal Federazioaren barnean lanean jarraitu du, hainbat lan-ildotan. Besteak beste, Hezkuntza, Etxebizitza, Eguneko Arretarako eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuen batzordeetan. Bide beretik, zeregin aktiboa dauka FEVAS barnean I+G+i gaia lantzen duen taldean.

- Hainbat profesionalen lana dela tarteko, Gautenak lankidetzan jarraitzen du Adimen Ezintasunaren eta Garapenaren arloko Elkarteen Espainiako Konfederazioarekin (FEAPS).

- FEAPSek proposatutako ildo estrategikoetako parte-hartzeari dagokionean, azpimarratzekoa da 2010. urtean Toledo 10 Biltzarrean parte hartu dugula. Bertan, Gautenako Lehendakaria FEAPS Konfederazioko Lehendakari aukeratu zuten. Gautenako Zuzendaritza Batzordeak FEAPSen Plan Estrategikoa osatzen lagundu du, Toledo 10en oinarrituta, eta plan hori epe ertainera ezartzeari egindako jarraipenean ere parte hartu du.

1.3.- Euskal Autonomia Erkidegoa

- Eusko Jaurlaritzak abian jarritako dekretu eta arau-ekimenetako hainbatetan parte hartzen jarraitu dugu; esate baterako, «zorro», «ordainkidetza» eta «hitzartze» dekretuei egindako ekarpenetan. Horiek erabakiko dute, hain justu, zein izango diren Euskal Autonomia Erkidegoan beteko diren Zerbitzuen izaera eta ezaugarriak, erabiltzaileei eskatuko zaizen ordainkidetza maila eta Administrazio Publikoaren eta

Gizarte Ekimeneko Entitateen arteko harreman formalak gidatuko duten irizpideak.

1.4.- Gipuzkoa

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin daukagun harremanari dagokionean, bi arrazoiengatik dugu nabarmentzekoa 2010. urtea.
- Batetik, Gizarte Politika Sailak Donostiako Berio auzoan Etxebizitza eta Aldi Baterako Egonaldietarako Zerbitzu bat eraikitzeke emandako laguntzagatik.



Etxebizitza eta Aldi Baterako Egonaldietarako Zentro berria, Berio (Donostia)

- Eta, bestetik, gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren iraunkortasunari buruzko gogoeta estrategikorako prozesua amaitu delako. Azkenean, Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu egin dute, eta Gautenak gogoeta horretan parte hartu du.

1.5.- Aliantzak

- GAUTENAK ATZEGI eta GUREAK-ekin sinatuta dituen aliantzak (hurrenez hurren, astialdiarekin eta Autismo Espektoaren Nahasmenduak -AEN- dituzten pertsonen jarraipenarekin lotutako arloetan) beren horretan iraun dute 2010. urtean ere.
- Era berean, Gipuzkoako Poliklinikako Carlos Elosegui Fundazioarekin beste aliantza bat daukagu, Autismoa ikertzeko.



2. Kudeaketa

2.1.- Plan Estrategikoaren eta Kudeaketa Planaren jarraipena

- 2010. urtean, 2008-11 Plan Estrategikoan eta 2010eko Kudeaketa Planean finkatutako lanarekin jarraitu dugu. Zuzendaritza Batzordeak eta Komiteak egin dituzte, hain zuzen, jarraipen-lana eta etengabeko balorazioa.

2.2.- Zerbitzuak

2.2.1 Diagnostiko eta Tratamendurako Zerbitzua

- 2010. urtean barrena, Diagnostiko eta Tratamendurako Zerbitzuaren eskariek ugartuz jarraitu dute. Memoria honetako

beste puntu batzuetan ikus daitekeen bezala, Elkartean 92 diagnostiko berri egin dira, eta 59 inguru Diagnostiko eta Tratamendurako Zerbitzuan txertatu dira.

- Diagnostiko eta Tratamendurako Zerbitzu honen eskari etengabearekin batera, arretarako modu berriak ezartzeko lanean jardun dugu. Betiere, diagnostikoa egiteko moduarekin, tradizioan banakako esku-hartze klinikoetan oinarritutako lanerako modua aldatzearekin, pixkanaka taldekako esku-hartzeak txertatzearekin (erabiltzaile zein familientzat) eta arreta goiztiarrerako adin-tartean (3-6 urte) harremanetan egoteko maiztasunari arreta eskaintzearekin lotuta.



Taldekako saioa, haurrekin



DIAGNOSTIKO ETA TRATAMENDURAKO ZERBITZUAREN JARDUERA, 2010	
Zerbitzuan artatutako kasu berrien kopurua	92
Zerbitzuan artatutako gaixoen kopurua, guztira	427
18 urtetik beherakoak	319
18 urtetik gorakoak	108
Egindako laguntza-kontsulten kopurua	5.219
Ebaluaziorako/Diagnostikorako kontsultak	246
Kontsulta bat baino gehiago	672
Banakako psikoterapiak	3.615
Taldekako psikoterapiak	656
Alten/eratorpenen kopurua	39
Atzerapen-adierazleak	
Hitzordua eskatu eta onartu arteko egunen kopurua	4,8
Onartu eta lehenengo hitzordua eman arteko egunen kopurua	7,8
Lehenengo hitzordua eman eta diagnostikoa jaso arteko egunen kopurua (*)	74
Diagnostikoa jaso eta tratamendua hasi arteko egunen kopurua	31

(*) Fase honetan, hain zuzen, Autismoa diagnostikatzeko kasu bakoitzean beharrezkoak diren probak aplikatzeko behar den denbora hartuko da aintzat. Alabaina, azpimarratzekoa da familiek diagnosi-arrasto bat jasotzen dutela Talde Klinikokoarekin lehenengo lau hitzorduak izandakoan.



Banakako saioa

2. Kudeaketa

2.2.2 Hezkuntza Zerbitzua

- 15 ikasgela egonkorrek osatu dute, 2010ean ere, Zerbitzua. Elgoibarko El Pilar Ikastetxean geneukan ikasgela, esaterako, Eibarko Mogel Isasi Institutura eraman dugu. Era berean, Jakintzako ikasgela itxi, eta Irungo La Salle ikasgela ireki dugu.




Mogel Isasi ikasgela (Eibar)

GAUTENAREN HEZKUNTZA ZERBITZUKO IKASGELEN BANAKETA, IKASTETXEKA		
IKASTETXEA	HERRIA	IKASLE KOPURUA
La Salle Berrozpe Ikastetxea	Andoain	5
Kurtxeberri Ikastola	Aretxabaleta	6
Mogel Isasi Institutua	Eibar	4
Elgoibar Ikastola	Elgoibar	5
Hijas de la Cruz Ikastetxea	Hondarribia	6
Intxaurren Ikastola	Donostia	5
San Ignacio Ikastetxea	Donostia	6
La Salle Ikastetxea	Donostia	7
El Carmelo Ikastetxea	Donostia	6
Oleta Ikastola	Donostia	5
Compañía de María Ikastetxea	Donostia	6
Langaitz Ikastola	Errenteria	5
La Salle San Jose Ikastetxea	Zarautz	5
La Salle San Jose Ikastetxea	Beasain	4
La Salle San Martzial Ikastetxea	Irun	6
	GUZTIRA	81



La Salle ikasgela- Irun.

- Ikasturte honetan, 81 ikasle daude ikasgela egonkorretan. Horietako 5 eskolatze-aldia euren ikastetxearen eta ikasgela egonkor baten artean ari dira banatzen.



2.2.3 Eguneko Arretarako Zerbitzua

 Garrantzitsua da nabarmentzea, 2010. urtean barrena, lan-aurreko hainbat jarduera egin direla Eroskiren bi zentrotan. Eguneko zenbait Zentrotako 14 pertsonak hartu dute parte horietan. Aldi berean, GUREAK Taldeak Lanerako Ikastegi batekin jarraitu du lankidetzan; hain justu, 8 erabiltzaile izan dira.



EROSKIN, hainbat zereginetan

EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUAREN BANAKETA, ZENTROKA

ZENTROA	HERRIA	ERABILTZAILE KOP.
Artolamendi	Donostia	34
Azkarate Enea	Donostia	21
Oriamendi	Donostia	18
GAUTENAREN unitatea	Errenteria	12
Autonomia erkidegoko unitate integratua	Donostia	7
	GUZTIRA	92



Oriamendiko Eguneko Zentroko taldea

 Ildo honetan, beharrezkoa da aipatzea lan-arloko ekintza hauek guztiak bultzatzeko asmoz, «7000 Programaren» bitartez, lan-prestatzaile baten laguntza izan dugula, denboraldi batean. Ekimen hori, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak sustatutakoa da, ezintasunen alorrean proiektu berritzaileak indartzeko egingutakoa.

2. Kudeaketa

2.2.4 Etxebizitza Zerbitzua

Lehendik dauden bost etxebizitzek 64 familiari ematen die babesa: 62 modu iraunkorrean daude, eta bi txandaka dabilta.

2010. urtean, Etxebizitza Zerbitzuan, instalazioak berritzeko eta hobetzeko hainbat lan egin dira. Azpimarratzekoak dira «ZARATEGI» Etxebizitzan egindako lanak.



Bazkaria, Goizaldeko terrazan

ETXEBIZITZA ZERBITZUAREN BANAKETA, ZENTROKA		
ZENTROA	HERRIA	ERABILTZAILE KOP.
Oriamendi Etxea	Donostia	15
Goizalde	Donostia	14
Zarategi pasealekua	Donostia	8
Txara	Donostia	12
Azkorte Etxea	Urnieta	15
	GUZTIRA	64

Osasunaren arloan jarraipenak eta protokoloak berrikusi dira, GAUTENAKO etxebizitzetan aplikatuta. Jarraipen eta prozesu horiek Zaragozako AETAPI Biltzarrean aurkeztu ditu GAUTENAK, jardunbide egoki moduan.



Etxebizitza-talde bat, txango batean



2.2.5 Familiei Laguntzeko Zerbitzua

 Gogorarazi nahi dizuegu Familiei Laguntzeko Zerbitzuak Aldi Baterako Egonaldiekin eta Aisia zein Astialdiarekin lotutako jarduerak gehitu dituela bere jarduera-alorrean.

 Oro har, jardunbide-lerro guztiek hazkunde nabarmena izan dute. Batez ere, egindako harrera kopuruari (97), familiei babesa eskaintzeko taldeen (6) dinamismoari eta Zerbitzu honek familientzat antolatutako hitzaldiek pizten duten interesari dagokienean.

FAMILIA-TALDEAK		
TALDEA	P. HARTZAILEAK	EDUKIA
ASPERGER	35 parte-hartzaile	Aspergerren gaitza duten seme-alabak dituzten familien antzeko gaiak
FAMILIA BERRIAK	14 familia	Babes emozionala
FAMILIA-ESKOLA	15 familia	Taldearen intereseko gaiak
EIBAR INGURUA	8 parte-hartzaile	Inguru horretako familia berriak
ZUMARRAGA INGURUA	15 familia	Taldearen intereseko gaiak
GAZTEEN FAMILIAK	10 familia	Taldearen intereseko gaiak

 Gainera, hainbat jarduera antolatu dira, GAUTENAKO familiak bildu ahal izateko. Nabarmentzekoa da, hain justu, «IGANDEAK FAMILIAN» ekimena.

Hilabeteko igande batean, batez bestean 15-20 familia elkartu izan dira Artolamendi Eguneko Zentroan, arratsaldea igarotzeko asmoz. Hala, haurren urtebetetze-egunak, etab. ospatu dituzte.



400etik gora pertsona izan dira KURSAALEAN jarritako Gabonetako Haur Parkean



2. Kudeaketa



Aipatu beharrekoa da, halaber, GAUTENAKo familiekin autobusez SENDA VIVArA egindako txangoa. Eta, jakina, baita

ASPACE Elkarteko familiekin batera Gabonetako Haur Parkeaz gozatzeko izan genuen aukera ere.



Familia guztiek izugarri gozatu zuten SENDA VIVArA egindako txangoan

FAMILIAN ESKU HARTZEA



Aurreko urteetan bezalaxe, ATSEDEN (Senitartekoen atsedena) eta GERTU (Familian esku hartzea) programak lantzen jarraitu dugu. Nabarmentzekoa da, SIISeKin lankidetzan, PREMIEN AZTERLANA egin

dugula. Azterlan horri esker, Foru Aldundira jo dugu, ALDI BATERAKO EGONAL-DIETARAKO ZENTRO BATEN beharra dugula adierazi, eta ideia hori defendatzera.

ATSEDEN PROGRAMA. «Senitartekoen atsedena»

2010eko ASTEBURUAK	26 asteburu
ERABILITAKO ATERPETXEAK	Zarautz, Hondarribia, Irun
PARTE-HARTZAILEAK	58 haur eta gazte
BEGIRALEAK	12

GERTU PROGRAMA. «Familian esku hartzea»

ESKU HARTUTAKO KASUAK	8 haur eta gazte
BEGIRALEAK	8



AISIALDIKO EKINTZAK

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK			
PROGRAMA	JARDUERA	PAR.-HA.	BEG.
LARUNBATAK, HAURRAK	DONOSTIA (AIETE) 16:00-20:00	10	5
LARUNBATAK, HAURRAK	EIBAR (PIO XII) 16:00-20:00 (Ekainera arte)	4	3
IGANDEAK, GAZTEAK	DONOSTIA 16:00-20:00	7	2
IGERILEKUAK, HAURRAK	DONOSTIA (ALTZA) Astelehen, asteazken eta ostegunetan	8	3
IGERILEKUAK, GAZTEAK	DONOSTIA (ANOETA) Astelehen eta asteazkenetan	7	3
AISIA, ZARAUTZ	ZARAUTZ (ATZEGIREN LOKALA) Astearte eta ostegunetan	3	2
AISIA, ZUMARRAGA	ZUMARRAGALARUNBATAK (16:00-20:00)	7	3



Bide beretik, aisiarekin lotutako hainbat jarduera egiten jarraitzen dugu; batez ere, oporraldietan. Azken batean, geure babes

ematen diegun pertsona guztiei kalitatezko aisiaz gozatzeko duten eskubidea bermatzea dugu helburu.



ATSEDEN PROGRAMAN, parte-hartzaileek aisiako hainbat jarduera egiten dituzte

ASPERGER			
PROGRAMA	JARDUERA	PAR.-HA.	BEG.
LARUNBATAK, GAZTEAK	DONOSTIA (USANDIZAGA) 16:00-20:00	16	4
AISIA, HAURRAK	DONOSTIA (USANDIZAGA) (Ekainera arte) Ostiralak 17- 20	3	1
AISIA, GAZTEAK	DONOSTIA (USANDIZAGA) (Ekainera arte) Ostiralak 17- 20	8	2
UDALEKU IREKIAK	Uztailean, ibilaldiak 10:00-14:00	7	2
IRTEERA	MADRIL Uztailak 26-30	14	3
ANTZERKIA	DONOSTIA (BERIO) (Urritik aurrera)	14	3



2. Kudeaketa

OPORRALDIAK

ASTESANTUA EGUBERRIAK			
PROGRAMA	JARDUERA	PAR.-HA.	BEG.
ASTE SANTUA	BENIDORM. Apirilak 5 - 11	20	8
ASTE SANTUA	DONEZTEBE. Apirilak 1 – 5	25	15
GABONAK	IBILALDIAK (Donostia, Zarautz, Zumarraga)	20	12

UDAKO PROGRAMA			
PROGRAMA	JARDUERA	PAR.-HA.	BEG.
UDALEKU INTEGRATUAK	AEN duten haurren parte-hartzea GAUTENatik kanpoko programetan	12	10
UDALEKU IREKIAK	AEN duten haur eta gazteen ibilaldiak	64	34
	Zarautz	4	3
	Elgoibar	6	4
	Arrasate	3	2
	Donostia (gazteak)	16	8
	Donostia (haurrak)	14	8
	Zumarraga	3	3
	Irun	6	2
	Hondarribia	5	3
UDALEKUAK, ABUZTUAN	10-15 eguneko txandak, aterpetxeetan	134	83
	Abuztuak 1-15 DONEZTEBE (helduak)	14	12
	Abuztuak 1-14 LEKAROZ (helduak)	17	10
	Abuztuak 1-14 GRAÑON (helduak)	17	7
	Abuztuak 1-14 SAN ASENSIO (gazteak)	15	10
	Abuztuak 1-15 TXARA (helduak)	8	6
	Abuztuak 3-9 ORIAMENDI (haurrak)	11	8
	Abuztuak 16-26 DONEZTEBE (haurrak)	18	13
	Abuztuak 14-27 SAN ASENSIO (gazteak)	18	10
	Abuztuak 16-29 LEKAROZ (gazteak)	16	7

 Ohiko jarduera horiez gainera, Jimmy Brosak eta Ainara Sanzek osatutako Familien Babeserako Zerbitzuak GAUTENako familiak hartzen ditu etengabe, horiei guztiei orientazioa eta baliabideei buruzko informazioa emateko.



Aste Santuan, gazte-talde batek ezin hobeto pasatu zuen Terra Mitican (Benidorm)



2.3.- Kalitatea eta Ezagutza

Honi dagokionean, bi atal bereizi nahiko genituzke:

2.3.1 Kalitatezko ereduak eta sistemak aplikatzea

- 2010ean ere, AENOREk bere ikuskaritzalana egin zuen. Laugarren urtez jarraian, ez du aipatu inolako ez-adostasunik.
- 2010. urtean, prozesukako kudeaketa (EFQM) barneratzen jarraitu dugu, eta

kudeaketarako aplikazio berri bat ezarri dugu: PSI -Prozesuen Sistema Integrala-.

- FEVASeko eta ondorioz FEAPSeko kideak garen heinean, FEAPSeko Kalitate Sailari eskatu diogu berak diseinatutako kalitate-ereduaren barnean sartzeko GAUTENA. Ereduak lau etapa ditu, eta behin eskaera egiten denean, erabakiko dute zein etapatan egongo den GAUTENA, eta baita hurrengo etapari aurre egiteko zein hobekuntza-pauso ematen behar dituen ere.



FEVASi eskainitako «Adimen Ezintasunarekin lotutako Paradigmei» buruzko prestakuntza

2.3.2 Kalitate arloko berrikuntza

- 2010. urtean, orain arteko Laguntzarako Banaka-banakako Programa ordezkaturako duen Nahitaezko Programaren proposamen berriaren izaera eta ezaguarri buruzko eztabaidan eta sakontze-lanean jarraitu dugu. 2011ko lehenengo hilabeteetan jarriko da abian, behin betiko, aipatutako proposamen hori.
- Era berean, Deustuko Unibertsitateko Etika Ikasgelako taldearekin lankidetzalanean jarraitu dugu. Lankidetzalari hori amaituta, GAUTENAKo Egokitze Etikorako Planaren

Jarraipenerako Batzordea eratu da. Hain justu, familien ordezkariak eta hainbat profesionalek osatutako organoa da.

- Organo horrek, hain zuzen, Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan egindako lanean proposatutako eta egiteko dauden jardunbideak bideratuko ditu. Nahitaezko Proiektuaren proposamen berriarekin lotura hertsia duen ekimen honen helburu lehena, beraz, pertsona bakoitzaren Banakako Programa osatzean ikuspegi etikoa txertatzea da, eta baita proiektu horri erantzuteko laguntzak ahalbidetzea ere.



2. Kudeaketa

2.3.3 Ezagutzaren kudeaketa

2010. urtean barrena, barne-prestakuntzarako hainbat ekintza antolatu ditugu, GAUTENAKo profesionalentzat.

2010eko PRESTAKUNTZA-EKINTZAK		
IKASTAROA	PRESTATZAILEA	PAR.-HA.
Egoera gatazkatsuetan zer egin	A.A. FISICA 2006 S.L.	66
Gizarte Sektoreko Berrikuntza	Juan José Goñi	14
Jokabide-laguntza positiboa	Manoli Crespo	8
AEN duten pertsonen Sexu-adierazpena	Olatz Aizpuru	26
Excel (oinarrizkoa)	C.E.I.	8
Orientazio teknikoak	Javier Tamarit	14
Taldekako tratamendua	Noemi Balmanya	6
Egokitze Etikorako Plana	Félix Arregi, Agustín Illera, Jimmy Brosa	60
Jardunbide egokiak	Jesús García, Agurrzane Urruzola, Xabier Zabala	58
Egokitze Etikorako Plana	Félix Arregi, Agustín Illera	56
Word	C.E.I.	30
Kalitatearen kulturaren sakontzea	Enrique Sacanell	20
Nahitaezko Proiektua	Félix Arregi	73
Nahasmendu duala	Susana Esteba	12
Autoebaluazioa	SAYMA	9
Lehen Laguntza	Josune Lazkano	14

2.4.- Bestelako jarduera batzuk

2.4.1 Urteko Sentiberatze Kanpaina

- GAUTENAK Autismoari buruzko Sentiberatze Kanpaina egin du beste urtebetez. 2010ean, «Bota ditzagun Autismoaren hesiak» leloarekin lotutakoa izan da. Azken batean, Autismoa duten pertsonen gizarteratzeko trabak izaten dituztela (eta ez soil-soilik fisikoak) nabarmendu nahi izan dugu.





2.4.2 Hitzaldi Zikloa

- Bide beretik, 2010ean ere, Hitzaldien Urteko Zikloa egin du GAUTENAK urrian, Arrasate kaleko KUTXA aretoan.
- Aurten, Olga Bogdashinak hartu du parte, Psikologiako Doktore eta Birminghameko Unibertsitateko Irakasle Bisitariak. Hain justu, «Sentimen-modulazioa, Autismo Espektoaren Nahasmenduetan» gaia landu du. Bigarrenik, Noemí Balmaña izan

da (Terrassako Unibertsitate Ospitaleko AEN Unitateko Psikologo Klinikoa). Eta, azkenik, Joaquín Fuentes doktoreak Joseba Zalakain, SIISeko Zuzendaria, aurkeztu zuen. Zalakainek «AEN dutenen senitartekoen premiak» azaldu zituen, Gautenan egindako azterlan batean oinarrituta.

- Jende ugari hartu du parte zikloan, eta parte-hartzaileek horri buruzko oso balorazio ona egin dute.

2.4.3 Laneko bisitaldiak

- Aurten ere, Erakundeak Espainiako hainbat autonomia erkidegotako ordezkariak egin

die harrera, eta baita beste herrialde batzuetatik etorritako zenbait talderi ere. Zehazki, 11 erakunde etorri dira bisitan.

01-18: Delegación Conseil Pyrenees Atlantiques (Frantzia)
 02-05: Hôpital de Bayonne (Frantzia)
 03-26: SPEG Elkarteak – Bordele (Frantzia)
 05-31: Mexikoko bisitaldia
 06-02: AFG Elkarteak – Paris (Frantzia)
 06-14: Nathalie Lehoucq – Autismo Luxenburgoko
 07-02: Angel Manuel Ramos
 10-14: Olga Bogdashina
 11-17: FEVAS
 11-24: Ander Zapiain (Gipuzkoako Foru Aldundia)
 12-10: Inpacts Elkarteak (Frantzia)

- Espainiako Autismo Konfederazioak antolatutako «Lanpostuan Trebatzeko Programaren» baitan, GAUTENAK hainbat profesionalak ikustaldiak egin dituzte Madrilgo eta Sevillako Terapia Zentroetara.
- Josu Olaskoaga (ikasgela egonkor bateko irakaslea - Gautenako hezkuntza) eta Ainara Rodríguez (Urrietako etxebizitza taldeko etxebizitzaren arduradun-albokoa),

esaterako, Madrilgo hainbat zentro ikusten izan ziren, maiatzaren 17an eta 18an.

- Iñaki García (Zarategi etxebizitzaren arduradun-albokoa) eta Ainhoa Etxebeste (Aieteko Helduentzako Eguneako Zentroko hezitzailea), bestalde, Sevillako hainbat zentro ikusten izan ziren, ekainaren 14an eta 15ean.

URTEKO KONTUAK

3.1. EGOERA BALANTZEA

GAUTENA (ASOCIACION GUIPUZCOANA DE PADRES DE AFECTADOS DE AUTISMO,
Y OTROS TRASTORNOS GENERALIZADOS DEL DESARROLLO)

EGOERA BALANTZEA (2. ETA 4. OHARRAK)

2.010KO ABENDUAREN 31n ITXITAKO EKITALDIA

(Euro-unitateak)

AKTIBOA		2.010	2.009	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA		2.010	2.009
A) AKTIBO EZ-KORRONTEA		5.651.082	3.528.241	A) ONDARE GARBIA		5.772.513	4.320.684
I. Ibilgetu ukiezina		717.827	14.320	A-1) Fondo propioak		284.140	263.872
III. Ibilgetu materiala		4.925.098	3.505.764	I. Sorrerako zuzkidura/Fondo sozial		263.872	252.490
V. Epeluzerako finantza-inbertsioak		8.157	8.157	IV. Ekitaldiko soberakina		20.268	11.382
				A-3) Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak		5.488.373	4.056.812
B) AKTIBO KORRONTEA		1.826.324	1.659.806	B) PASIBO EZ-KORRONTEA		45.486	45.486
III. Erabiltzaileak eta berezko iharduerako zordunak		335.503	83.811	I. Epe luzeko hornidurak		45.486	45.486
IV. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak		840.045	1.364.986	C) PASIBO KORRONTEA		1.659.407	821.877
VIII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak		650.776	211.009	II. Epe laburreko hornidurak		36.168	28.094
				VI. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak		1.459.183	793.783
				VII. Epe laburreko periodifikatzeak		164.056	-
AKTIBOA GUZTIRA		7.477.406	5.188.047	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		7.477.406	5.188.047

3.2. EMAITZEN KONTUA

GAUTENA (ASOCIACION GUIPUZCOANA DE PADRES DE AFECTADOS DE AUTISMO,
Y OTROS TRASTORNOS GENERALIZADOS DEL DESARROLLO)
GALDU-IRABAZIEN KONTUA (2. ETA 4. OHARRAK)
2.010KO ABENDUAREN 31n ITXITAKO EKITALDIA
(Euro-unitateak)

	2.010	2.009
1. Berezko ihardueraren erakundearen sarrerak	7.323.773	7.172.441
8. Pertsonal-gastuak	(5.420.857)	(5.248.822)
9. Ustiapeneko bestelako gastuak	(1.872.799)	(1.898.157)
10. Ibilgetuaren amortizazioa	(319.732)	(310.479)
11. Berezko iharduerari atxekitako eta ekitaldian emaitzari egotzitako kapital diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	303.395	289.767
13. Bestelako emaitzak	9.318	6.433
A) USTIAPENeko EMAITZA	23.098	11.183
14. Sarrera finantzarioak	3.200	5.502
15. Gastu finantzarioak	(6.030)	(5.303)
B) EMAITZA FINANTZARIOA	(2.830)	199
C) ZERGA AURREKO EMAITZA	20.268	11.382
D) EKITALDIKO SOBERAKINA	20.268	11.382



GAUTENA

ASOCIACIÓN GUIPUZCOANA DE AUTISMO
GIPUZKOAKO AUTISMO ELKARTEA

C/ Francisco López Alen, 4
20009 DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Apartado 1000
20080 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Tel.: 943 21 53 44 / 21 52 49

Fax: 943 21 52 39

gautena@sarenet.es

www.gautena.org